

# Idazlana

Idazlan bat gai bat menderatzen duzula eta ondo adierazten dakizula frogatzeko idatzi bat da. Erredakzio on batek asko esaten du zutaz eta zure trebetasunez, beraz, saiatu beharra dago.

Lan formatu hau ikerketa txikietan aurki dezakezu, azterketa baten garapenari buruzko galderetan... teknika on bat leuntzen joan behar duzu. Aholku hauek jarraituz gero, emaitza kalitate onekoa izango da.

## **GOMENDIOAK:**

- Pentsatu idatzi aurretik: gomendatzen dizugu hausnarketarako denbora pixka bat hartzea idazten hasi aurretik. Izan ere, jarraitu nahi dituzun ideien ordenarekin eta nabarmendu nahi dituzun adibide eta datu garrantzitsuenekin gidoi bat egitea litzateke egokiena. Gidoi honetan, hasierako sarrera-paragrafo bat eta amaierako ondorio-paragrafo bat uzten dira beti.
- Idazketaren egitura: idazlanak paragrafotan banatuta egon behar du. Horien luzera aldakorra da, baina nabarmendu egin behar dira, diskurtsoa egituratzen laguntzen dute. Konposizioa antolatzeko, gogoratu oinarrizko hiru puntu hauek:
  - Sarrera: arazoa aurkezten duzu, jatorriari buruzko datuen bat ematen duzu, zertan datzan, etabar.
  - Korapiloa: hemen informazio nagusia garatzen duzu, eta oso komenigarria da aurreko gidaira joatea. Informazio hori modu ordenatuan egitura ezazu, ideia argiekin, adibideekin. Paragrafoek hari eroale logiko bati jarraitu behar diote, horregatik, komeni da lokailuak erabiltzea ideiak erlazionatzeko.
  - Ondorioak: gutxienez paragrafo batekin amaitu behar duzu. Paragrafo horretan gaiaren alderdi garrantzitsuenak laburbildu behar dituzu; azter ezazu hemen beste ikuspuntu bat, iritzi bat, gertakariaren ondorioak... Hausnarketa borobiltzeko eta sakontasuna emateko balio du.
- Kontrolatu denbora: gauzatze-denbora kontrolatu behar da, ez da gauza bera etxean idazlan bat egitea edo azterketa batean egitea. Bizpahiru minutuko gidoi horiek aliatu bihur daitezke presaka idazterakoan, uste ez baduzu ere. Azterketa batean, oso komenigarria da erloju bat izatea, nola zoazen kontsultatzeko.
- Erakutsi badakizula: hau garrantzitsua da, oso ondo jakin behar duzu zer eskatzen ari zaizkizun. Irakurri enuntziatua eta jarraibideak patxadaz, denbora ondo erabilia da. Zalantzarik baduzu, galdetu. Batzuetan, idazten duzunean, ideiak bururatzen zaizkizu,

idatzi gidoian. Maltzurra izaten ikasi behar duzu, erredakzio batean onena da komeni zaizun lekura pixka bat zuzendu dezakezula. Erakutsi zure indarguneak, eta saiatu argi ez daukazuaren gainetik pasatzen.

- Aurkezpena: modu lardaskan aurkeztutako idatzi on batek asko galtzen du. Bakoitzak duen letra dauka (zurea ulergarria ez bada, kaligrafia-ariketaren bat egin behar duzu), baina aurkezpen-arau hauen arabera edozein idazki hobetzen da:
  - Izenburu argia jarri eta azpimarratuta.
  - Gogoratu marjinak oso garrantzitsuak direla, bai goikoa, bai behekoa eta bai alboetakoak. Baina tentuz, ez da olerki bat. Hatz pare baten neurria baliagarria izan daiteke.
  - Paragrafoetan beti: lerroarte eta koska pixka bat gehiagorekin marka itzazu, ordena eta egitura bat ikus dadin.
  - Ekidin tatxoi indartsuak: tipexa ez baduzu, jar ezazu parentesi artean okerra, eta taka egiteko marra fin bat, fina, mesedez.
  - Ezagutu zeure burua: garbia zara eta boliz ezabagarriak erabil ditzakezu? Edo zirriborroak sortzen dizkizute? Erabiltzen duzun bolia zure estilorako egokiena da? (Batzuek asko estutzen dute eta tintak gainezka egiten du, etab.)
  - Ideia berri bat gehitu nahi baduzu, aukera onena izartxo bat (\*) jarri eta orrialde horren amaieran idaztea da.
  
- Adierazpena: hiztegi argia eta zehatza erabili behar duzu. Saia zaitez sinonimoak erabiltzen errepikakorra ez izateko, eta lokailuak, idazketari jarraipena emateko. Esaldi oso luzeak saihestu, maneiatzeko zailagoak baitira. Banatu unitate laburragoetan, baina ezta gutxienekoetan ere. Puntuazio-zeinuak zuzen erabili. Puntu honetan, kontuz hiztegi espezifikoarekin, egokiro erabili, kontzeptu bakoitzak bere izen espezifikoa du.

IDAZLANAK EBALUAZTEKO ERRUBRIKAK

	BIKAIN	OSO ONDO	ONDO	NAHIKO	GUTXI
AURKEZPENA: Marjinak Parrafoak Txukuntasuna	Puntu 1	0,75 puntu	0,5 puntu	0,25 puntu	0 puntu
HIZTEGIA: Zehatza Sinonimoak Anitza	Puntu 1	0,75 puntu	0,5 puntu	0,25 puntu	0 puntu
GRAMATIKA : Esaldien egitura Lokailuak Ordenatuta	Puntu 1	0,75 puntu	0,5 puntu	0,25 puntu	0 puntu
EGITURA: Sarrera Korapiloa ordenatuta Amaiera landuta	Puntu 1	0,75 puntu	0,5 puntu	0,25 puntu	0 puntu
GAIARI BURUZKO EZAGUTZA: Garrantzitsuena eta bigarren mailako ideiak argi adierazita daude	3 puntu	2,5 puntu	2 puntu	1,5 puntu	0 , 5 puntu
EREDUAK: Eredu zehatzak, datu interesgarriak, ondo kokatuta	3 puntu	2,5 puntu	2 puntu	1,5 puntu	0 , 5 puntu
PENALIZAZIOAK					
Kopiaketak	Nabaria da ez dela kopiatu, testu bat txertatzen bada uko m a t x o artean jarri eta iturria aipatzen du	Testuaren zati txiki bat ez da originala eta ez da aipatu iturria. -puntu 1	Testuaren heren bat inguru ez da berea. -2 puntu	Testuaren erdia inguru egile susmagarria da. -3 puntu	Testu hau ez da zurea. -5 puntu
Berandu emateagatik	Garaiz entregatuta	Egun bat berandu -puntu 1	Bi egun berandu -2 puntu	Hiru egun berandu -3 puntu	L a u e g u n berandu - 4 puntu
ERANSKINAK					